

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko otsailaren 19a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Bera** • Guatemalari buruzko erakusketa ibiltaria paratu dute Kultur Etxean.

**Peio Monteano** • «XV eta XV. mendean ere ez zuen osotasun bat bezala funtzionatzen Nafarroak».

## Emakumearentzako

### Ianik bai ote Sakanan?



• OSKAR MONTERO

Duela gutxi Francisco Lopez de Aldak, Sakanako Enpresarien Elkarteko presidentea, Sakanan mila lanpostu berri zeudela esan zuen. Hori entzunda badirudi eskualdean ez dutela langabezi arazorik.

Dena dela, errealitatea hori baino korapilatsuagoa da, eta hainbat taldek eta inguru horretako sindikatuek datu horiek zehaztu txosten bat plazaratu dute. Espainiako Enplegu Institutuaren (Inem) datuen arabera, eskualdean gizonezkoen artean langabezia oso txikia da, (%2), baina emakumezkoen artean oso handia dela nabaritu dute, kasik %19koa.

Iruñea

Dantza eta dantza taldeak aztertuko ditu euskal kultura garaikidean Ortzadarrek

URRIAN EGINEN DITUEN FOLKLO-  
rearen eta kultura tradizio-  
nalaren inguruko jardunal-  
dietan 'Dantza eta dantza  
taldeak euskal kultura  
garaikidean' gaia jorratuko  
du Ortzadar taldeak.

Jardunaldiak urriaren  
19an hasiko dira, eta 23a  
arte iraunen dute. Jardunal-  
dietan zehar hainbat alor  
aztertu eta eztabaidatu nahi  
dituzte: dantza ondare kul-  
tural kolektibo moduan;  
dantzaren jokaera eta erri-  
tualak eta gauzaturikoaren  
artean duen betebeharrak;  
dantza folklorikoetan berta-  
koak diren ezaugarriak eta  
beste herrialdeetakoak ere  
badagozkienak; azken men-  
deetan dantza taldeak egin  
duten bidea: jai euskaroak,  
mugimendu nazionalisten  
osaketa, euskal kulturaren  
ikurra, eta gaur egungo  
gizartera bideraturiko politika  
kulturalari buruzko  
estuasuak.

Gai horiek guztiak sakon  
aztertuko asmoa du Iruñeko  
Ortzadar folklore taldeak.  
Dena den, jardunaldiak ire-  
kiak eta aberatsak izatea  
nahi luke, eta horretarako  
gaiaren inguruan lanak bil-  
datzeko gonbita egin du.  
Txostenak ekainaren 26a  
baino lehen igorri behar dira  
Descasos 65 karrika,  
behea, 31001, Iruñea helbi-  
dera.

→ Uxue Zabaleta

Lizarra ●

# Ibilaldia, unibertsoan

Izar, kometa eta planeten inguruko erakusketa Fray Diego kultur etxean

**Ega ibaiertzeko  
herrian unibertsoa  
ardatz duen  
erakusketa zabala  
paratu dute. Gero  
bertze 14 herritara  
joanen da, hain  
zuzen ere,  
herrialdeko kultur  
etxe orotan izanen  
da ikusgai urtea  
aurea joan ahala.**

**A**NTZINA-ANTZINATIK GIZAKIA  
zeruaren iluntasunari  
so egon da hainbat eta hain-  
bat misterioen erantzuna  
aurkitu nahian. Sinesmenak  
sinesmen, unibertsoaren  
handitasunaren aurrean  
ihardespen guztiak urriak eta  
okerrak izan dira mendeetan.  
Jainko ugari sortu ziren garai  
haitan, eta Lurra unibertso-  
aren erdigunea zela ere pen-  
tsatu zen orduan. Zientzia  
sortu zenetik galdera anitzi  
erantzun zaie, baina gaur  
egun ere misterioak ugariak  
dira.

Ibilaldia, unibertsoan zehar  
erakusketa duda-muda hori-  
ek argitzen saiatzen da. Oro-  
tara lau sail aurki daitezke  
erakusketan hilaren 21a arte.  
Aurreneko atalean, tamaina  
handiko panelen bidez, Marte  
planeta, kometa eta ilargiaren  
bi aldeak ikus daitezke, hots,



Fray Diego kultur etxean unibertsoaren inguruko hainbat bitxikeria ikas daitezke.

MIKEL UHARTE

Eguzkiaren aldean dagoen  
ilargia eta Lurra bertatik ikus  
daitezkeena. Bigarren sailean,  
eguzki sistema ageri da eskuz  
egindako hamar bat maketa-  
tan, astro bakoitzaren berezi-  
tasunak ere aztertzen dira  
bertan. Hirugarren atalak his-  
torian gizakiek erabili izan di-  
tuzten behatokiak miniaturak  
bildu ditu. Hala, maia eta az-  
teka zibilizazioetatik hasi eta  
Hubble teleskopioraino. Azke-  
neko sailean zodiakoa iker-  
tzen da. Tramankulu batek  
konstelazioen dir-dir etenga-  
bea eta koloretsua adierazten  
du nahi den zeinuaren botoia  
zapaltzerakoan. Badirudi as-

trolgoek eta astronomoek  
erabiltzen duten denbora ez-  
berdina dela, eta, horrela, ho-  
roskopoak eguzkia zeinu ba-  
tean dagoela esaten duenean,  
astronomiaren arabera aurre-  
koan dago. Egutegia zehazte-  
ko ahalegin bat baino ez omen  
da.

**Ibiltaria izanen da**

Erakusketa Lizarrako Fray  
Diego kultur etxean dago,  
igandera arte. Gerora Nafarro-  
ako bertze hainbat herritara  
joanen da: Baztango herrieta-  
ra, San Adrian, Lodosa, Irur-  
tzun, Aranguren, Berriozar,  
Atarrabia, Antsoain, Burlata,

Zizur Nagusia, Azagra, Tafa-  
lla, Castejon eta Altsasua.

Erakusketa adin guztietako  
jendeari dago zuzendua, bai-  
na bereziki haur eta gaztetxo-  
ei. Hala, bada, ikastetxeek bi-  
sitak egiteko aukera ezin ho-  
bea dute.

Azkenik, erran beharra da-  
go, ikusi eta ikasteaz gain,  
erakusketak bertzelako auke-  
ra bat ere eskaintzen duela,  
hots, gizakiok gure txikitasun  
eta garrantzi erlatiboaz jabe-  
tzeko aukera. Izan ere, Lurra  
unibertso txoko zinbrikoa  
baino ez da.

→ Kristina Berasain

muga enea

MIKEL REPARAZ



## Epizentroaren teoria

**B**art lurrikara izan zela biharamunean  
jakiteak amorrua ematen du. Are, oha-  
tze propioaren azpian Richteren eska-  
lan 4,1 puntuko astindua izan dela sumatu ez  
izanak ematen du amorru gehien, «ni lo nintzen»  
esan beharrak, eta aldamenekoa ikaragarria izan  
zela esanez espantuka ikusteak, kiosko aurrean.  
Orduan, Luzaideko epizentrotar anitzen artean  
gertatu den bezala, nahiago izaten dugu espantu  
kolektiboarekin bat egin, eta goizari emozio tanta  
batzuk atxiki, masa aztoratuaren parte izan.  
Hala, guztiok senditu ahal izan genuen ikara -lur-  
rikara, alegia-, etxea gainera zetorkigula uste izan

genuen denok mementu batez bederen, eta lztu-  
ritzetik Iruñerrirainoko apokalisia Akitania eta  
Gaztelan barrena zabaldu zela ere pentsatu  
genuen. Baina ez, irrati lokalean izugarrikeria  
guztiak adierazi bitartean, guk badakigu herrian  
lo ginela. Arras zopa.

Antzeko zerbait gertatu zen astelehenean Iru-  
ñean. Luzaideko karrikak bezala, Iruñeko Udale-  
txearen plaza epizentrotar esnaberriz bete zen,  
satazulo inprobisatuz, San Antonio-zulo inprobi-  
satuz. Portland izeneko astindu sismologikoaren  
bestondora arte lotan izan baikin gehienok.  
Telebistari begira batzuk, Osasunak izekitako

itxaropenari so besteak, lotan ia denok. Lo.


Eta balkoia jokalariz gainezka ikusi genuene-  
an, gerauen buruari galdegin genion, Tau Basko-  
nia eta Discovery misiotik etorritako astronautak  
ote ziren gazte haiek. Baina inuzentean ere ez  
zuen hitzik askatu. «Txapeldunak, txapeldunak»  
oihu egitea aski baitzen. Galderarik ez. Lurrika-  
raren efektua izenda genezake fenomeno hori,  
edo eta epizentroaren teoria. Baina aitzakiak  
aitzakia, gauza da amorrua eman ziola bakarren  
bati, segur, gazte koadrila hark egin zuena ikusi  
ez izana. Amorrua, lotan pasa zuelako gaua.  
Luzaiden goizean goiz jaikitzea bezala.

Bera •

# Guatemalari begirada

Erakusketa antolatu du Lagun Artean GKEak Berako kultur etxean

Guatemalako herria hobe ezagutzeko, argazkien bidez ikusteko eta hango ohitura zein egoera sozio-ekonomiko-politikoa nolakoa den aztertzeko parada egonen da datorren astelehenetik larunbatera Berako kultur etxean



Astelehenean zabalduko da Guatemalari buruzko erakusketa  
GARI GARAIALDE

**B**IZKAIKO LAGUN ARTEAN Gobernu Kanpoko Erakunde Guatemalan egiten ari den lanaren fruitu da datorren astean Beran zabalduko duten erakusketa. Astelehenean zabalduko dute, eta larunbata bitarte arratsaldeko 6:30etatik 8:30etara egonen da zabalik egunero. Informazio ugari biltzen da erakusketan. Hala, haurren zein emakumeen egoerek toki berezia dute, baita Guatemalako herriaren historiak; nekazaritza eta artoak; osasunak; elikadurak; eta oro har herriarekin lotura duten gai

orok. Bi kezka nagusi islatzen ditu erakusketak, bata analfabetismo maila eta bertzea nekazaritza. Lehen gaiaren inguruan Lagun artean GKEa 'Patojos' egitasmoa ari da lantzen Ertamerikako herrialde hartan. Izen horrekin deitzen dituzte Guatemalan haurrak, eta egitasmoaren bidez, %52 analfabeto duen herrialde hartako haurrei ikasteko aukera eskaini nahi diete. Egun, haurren %44ak baino ez du ikasteko aukera, eta Lagun Artean-en bidez, makina bat tokitan ari dira ikastetxeak

eraikitzen eta heziketa ematen.

## Hainbat datu

Nekazaritzaren gaiak ere toki berezia du. Nekazaritza da ia lanbide bakarra Guatemalan, gizartearen kopuru handi bat langabe dagoen arren. Baina lantzeko lurra duten gehientsuenek ez dute bizibidea ateratzeko adina eremurik. Hala, lurren %65a lurjabeen %2,5aren esku dago.

Emakumeek eta haurrek bizi duten egoerak eta osasunak ere toki berezia dute argazkiak, oihalak, jantziak eta

panel informatiboak ardatz dituen erakusketa honetan. Maien kultura, eta herri indigenen geroa hurbiletik lantzen da. Halaber, GKE honek Guatemalaz prestaturiko makina bat txosten, eta zenbait liburu ikusi eta eros daitezke erakusketan bertan.

Jende ororentzat arratsaldeetan zabalik egonen bada ere, goizero herriko ikastetxe guztiekin bisita didaktikoak egingen dituzte, eta Guatemalako egoeraz ariko dira ikasleekin.

→ Jon Abril



## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Baionako katedrala berritzen

**Herria** astekariak Baionako katedrala berritzeko hasi diren obren berri ematen du azken zenbakiko orrialdeetan: «Obretan da Baionako katedrala bultza bat honetan jadanik. Indar berri bat hartzen dute lanek negu honetan dela kanpotik dela barretik ere. Baionako apezpikuaren eliza aulkia ez da nola nahika berritzen haatik. Obra horiek azkarki zainduak dira katedrala munduko ontasun ekarria baita».

Obren berri zehatza jasotzeko, Joseph Camino bikario nagusiarekin mintzatu da **Herria** astekaria, eta ondokoak dira Caminok errandakoak: «Katedral hau mi-

resgarria da berenaz eta nihaurek miretsi dut bost urte egona bainaiz hemen erretor, ezagutzen dut frango poliki eta maite dut. Gure elizetan ederrenetarik dugula hau, nahi genuke bizi leku bat izan dadin, elizkizunak egin daitezzen hemen aitzina dela parrokiaren dela diosesa guztiaren kondu».

«Orain seguritate baldintza biziki zorrotzak ezartzen dituzte: sekulan sua lotzen balitz honenbeste ate eta idekidura behar litekeela eta beste, sekulako prekozoneak galdatzen dituzte, apur bat sobera ene iduriko; ene nahia da obra

horiek aitzinatzearekin kontzertu ederak ere berriz has daitezzen hemen», dio bikarioak.

Katedralaren historia aipatuz ematen dio amaiera **Herriak** artikuluari: «Katedrala ez da oraikoa, XIII. mendean eraiki zen. Iragan mendean xahar-berritu. Azken hamar urte hotan, egundainokotan obra gaitzak akulatu dira, gobernuak hortarako xahutuz 40 milioi. Junta aintz azkartu behar izan dira, elektrika muntadurak berritu, dorreak erre berritzen ari, helduen urteko ezkilak berriz beren tokian ezartzeko gisan».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

### Dragoi nekagarriok!

Inauteriak ailegatu eta Eskoziako gazteluaren mozorroa jantzita atera nintzen kalera. Gazteluak dorreak zituen eta zubi bat, eta lubakia, eta lubakian ur beltza eta geldia, eta ilunabar bat zuen ere, ilunabar erromantikoa. Leiho gotiko txikiak ere bazituen, setiatzailei barrukaldetik azkonak jaurtikitzeko modukoak, eta urrutian Ingalaterrarekin muga egiten dituzten mendiak ere nabari ziren, azken hauek oso modu eskematikoan noski. Mozorro paregabe honen leihoetatik barrukaldera begiratu ezkerreko gazteluaren sala nagusia ikusten ahal zen eta sala nagusian tximini handia su goxo batekin. Tabernan sartu nintzenean barrukoentzat kriston ikuskizuna izango nintzela pentsatu nuen. Atea ireki eta aurretik ilunabar erromantikoa aurrera bota nuen bere hodei more eta gorriekin eta gero larreek eta mendi muinoak eta bukatzeko gaztelu beltza, ooooo!, leihoetan suaren dirdir laranja ederrekin. Bainan ez nuen inor harritu. Segituan ulertu nuen tabernako bezeroek lur jota zeudela, dragoi bat menperatuak zituela. Dragoia, bikingoz oso modu traketsen mozorrotutako mozkorti jasangaitz bat, niregana hurbildu zen. Bezeroek hasperen egin zuten zama gaitetik kenduta. Bainan ni setiatua nengoen. Dragoiak «gure eguneroko mozorroetaz» hitzaldia bota zidan. Sakona tipoa. Gero politikoz guztiak, HB barne, kakati batzuk direla bost edo sei aldiz errepikatu zidan. Setiatua bai, bainan murrulodien babespean nintzen. «Hitzegin dezala, neri bost» - pentsatu eta txupito bat eskatu nuen. Dragoiak emakume guztiak putak direla leloarekin hamar minutuko txapa bota zidan. «Kontuz, ez hurbildu horrenbeste, lubakian eroriko zara», ohartarazi nion, bainan tipoa haserretu eta «lubakia!, kaka!, badakizu zer pentsatzen dudan nik lubakietaz?...» oihukatzen zuen bitartean gehiegi hurbildu eta, zas, lubakiko ur sakonera erori zen. Tabernan zeuden bezero guzti-guztiak txalo zaparrada bota zidaten «askatu gaitu, askatu gaitu!». Neskek, batez ere, kriston indarrak txalotu ninduten. Batzuek lubakian pixa eta guzti egin zuten. Hura eromena. Hura poza. Neska ilegorri batek Ingalaterrako muga eskematikoan muxukatu eta guzti ninduen.

Enpresarien Elkarteko presidentek 1.000 lanpostu bete behar zirela bazioen ere, eskualdean emakumezkoen langabezia oso handia da

Francisco Lopez de Alda, Sakanako Enpresarien Elkarteko presidentek Sakanan 1.000 lanpostu berri sortu zirela esan zuen duela gutxi. Hori entzunda badirudi eskualdean langabezi arazorik ez dutela. Dena den, errealitatea hori baino korapilotsuagoa da, eta hainbat taldek eta zonaldeko sindikatuek hitz horiei ñabardurak ezarri dizkien txosten bat plazaratu dute.

SAKANAKO EMAKUMEAREN LAN EGOERAZ kezkatutik, eskualdeko hainbat erakunde eta emakume taldek (Altsasuko Feministak, Egizan, Olaztik eta Altsasuko Emakumearen Batzordea, Emakumeen Bilgunea, Garapen Agentzia, eta LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek) Francisco Lopez de Alda, Sakanako Enpresarien Elkarteko presidentek esandakoari ñabardurak egin nahi izan dizkiote. Duela hilabete pare bat Lopez de Aldak Nafarroako egunkari bati Sakanan 1.000 lanpostu bete behar zirela zioen eta zonaldean ez aurkitzekotan kanpotik jen-



Emakumeak Ispording Hispania S.A.ko langileen artean. ● OSKAR MONTERO



# Emakumearentzako

# lan aukera gutxi Sakanan?

dea ekarri beharko zutela. Hitz horiek soka luzea ekarri dute eskualdean.

Garalur Nekazal Garapenerako Zentruak eta CEINK egindako Aton-Mosaïque proiektuaren baitan joan den urtean egindako 'Iparmendebaldeko Zonaldea' txostenaren arabera, 1996an 18.201 biztanle bizi ziren Sakanan, hamalau udalerrietan banaturik. Eskualdea, funtsean, industrial da, lana duen biztanleriaren %47,9k sektore horre-

tan egiten baitu lan. Baina, dena den, emakumearen enplegu tasak oso baxua izaten jarraitzen du txostenak hartu dituen hiru zonaldeetan. Sakana, Baztan-Bidasoa, eta Leitxaran-Larraun-Ultzama enplegu osoaren %10era baino ez da iristen. Txostenak aintzat hartu beharko liritekeen beste datu batzuk ere eskaintzen ditu taldeon irudiko. Bost langile baino gehiago dituzten Sakanako 90 enpresetatik bederatzitan bakarrik egiten dute lan emakumeek produkzio arloan. Gainerako enpresetan emakumeek administrazio arloan dihardute. Dena den, datu hori zertxobait aldatu daitekeela esan daiteke zonaldeko enpresa batzuek emakumeak kontratatzen hasi direlako produkzio-rako: Eguzkia-NHK, Maderas Navarro, Viscofan, Ispording, Gamesa Eolika, Ufesa, Igartex eta Olazagutiako gazta enpresan.

Hori langabezi kopurua gehitu behar zaio, Espainiako Enplegu Instituto Nazional-eko joan den urriko eta azaroako datuak erreparatzen badira, Sakanan langabezia kasik %8 zen. Baina, datu hori emakumezkoen eta gizonzkoen artean banatzen bada, egoera franko aldatzen da. Horrela, gizonz-

koen artean langabezia ez zen %3ra iristen, baina emakumezkoen artean %18,53 zen urrian, eta %16,96 azaroan. Beraz, aldea nabarmena zen.

### Trebakuntza eta lan merkatuaren arteko desorekaz kontzientziatu

Susana Mendinueta, Sakanako Garapen Agenteak dienez, aurrean aipatu datu guztiak aintzat hartuz, emakumearen lan egoera nahiko larria da. «Dauden enpresa motak ez dute emakumea laneratzten. Horrela, betiko lanpostuetan dihardute gehienbat, administrazio lanetan, alegia. Hemen dagoen enpresa mota oso espezializatua dago eta emakumeak sartzea oso zaila da. Sei enpresa edo dira hartzen dituztenak, baina gehienak kanpora joan behar dute lanera», dio etsiturik.

Idoia Goikoetxea Altsasuko Emakumeen Bilguneako partaidea eta Mendinueta berak uste dute trebakuntza eta lan merkatuak eskatzen duenaren arteko desoreka dagoela. Beraiek diotenez, Sakanako Inemeko bulegoan emakumeek ondoko beharretan ematen dute izena: peoi, garbiketa, ta-

## Enpresarien Elkartea kezkatutik

Ana Larraza, Sakanako Enpresarien Elkarteko idazkariak dienez, kezkatutik daude lanpostu horiek bete behar direlako eta enpresa askok egiten dizkieten eskaerak ezin dituztelako bete. «Gure helburua da lanpostu horiek lehenbailehen betetzea dituzten eskaera uzten ari direlako enpresa asko», dio. Sakanan enpresen %70 metalurgikoak dira eta zerbitzuak oso gutxi garatuak daude.

Elkartean guztira 100 enpresa daude, asko txikiak dira, bost langile baino gutxiago dituztenak, baina badira handiak ere batez beste 100 eta 200 langile enplegatzen dituztenak: Portland porlana enpresa, Susundegi autobus eta trenak egiten dituen, Ufesa eta Inasa Irurtzunen, kasu. Enpresa horiek dira, batez ere, aipatu diren lanpostuak eskatzen dituztenak.

«Ados gaude hemengo jendea behar diren espezialitateetan trebatzeko.

Baina gertatzen dena da langabezia dagoen jende gehiena administrazio ikasketak egin dituenak eta emakumeak. Lan hori ez da hemen sortzen eta sortzen dena da peoi bezala edo metaleko enpresetako espezialitate baten batekin» dio Larrazak.

Elkartearen arabera, proposamen

batzuk egin ziren bai Sakanako Mankomunitatean zein Nafarroako Gobernuan. «Enpresa mota horietan beti gizonzkoak aritu dira eta traba bat aurkitu genuen. Antolatuta dira ikastaroak eta badira lanean ari diren emakumeak. Baina erakundeek ez die proposamen horiei erantzunik eman» gaineratu du.

Egoera horren aurrean dio langileak hartuko direla dauden tokitik eta presaturak daudenak. «Arazo larriena da jenderik ez dagoela. Oraindik lanpostu horiek hutsik daude. Garapen Batzorde bat egitea proposatu genuen agente guztiak koordinatze bako momentuz ez dago ezer. Behar dira soldadoreak, torneroak, fresadoreak, eta peoiak bai enpresa industrialeko eta bai erakuntzarako», dio kezkatu.

Bestalde, uste du arazo honi aurre egiteko garrantzitsua dela ere enpresa berriak erakartzea eta horiek emakumeen eskulana erabiltzea.



Idoia Goikoetxea: ● JOXE LACALLE

### Idoia Goikoetxea:

«Sakanako enpresetan oraindik trebakuntzarik gabeko langileak behar dira, eta horiek emakumezkoak zein gizonzkoak izan daitezke. Gure borroka ezin da izan enpresaren aurkakoa, horregatik gaude formakuntzaren, informazio gehiagoren alde baina enpresak ere zerbait egin behar du».

bernari-zerbitzariak, administrazioak, saltzaileak, eritxetako laguntzaile edota hezkuntza. Aldiz, enpresen langabeziko bulegoari eskatzen dizkiote, batez ere, peoiak, soldatzaileak, merkatariek, igeltsu-erakundeak, gidariak eta mantentzen dituzten elektromekanikoak betetzeko lanpostuak. Beraz, eskaintza eta eskariaren arteko apurketa nabaria da.

Hori dela eta, Idoia Goikoetxea uste du Nafarroako Gobernuak zein eskualdeko Udalek trebakuntza eginahal handia egin behar dutela eta emakumea trebatu falta diren lanpostuak betetzeko. Goikoetxea dio, batetik, emakumeak eskualdeko enpresen eskatzen dituzten lanetan trebatzeko benetako formakuntza behar dutela, eta bestetik, egun lan merkatu sartzeko zaila suertatzen zaion emakumeari formakuntza zabaltea eta hurbiltzea. «Emakume horietako askok uste dute formakuntza horrek ez diela enpresaren atera irekiko beti horrela izan delako, nahiz eta soldatzaile lanetan edo elektromekanikan trebatu. Dinamika bat barneratu dugu guztiok». Beraz, ez da nahikoa esatea formakuntza eta lanpostuak daudela. Orain ekintza positiboak egin behar dira. Ikastaro horiek emakumei hurbiltzeaz gain, Goikoetxea uste du enpresariari nahietara ez ezik, emakumeen beharretara ere egokitu behar direla. «Emakumeek lan egun bikoitza egiten jarraitzen dute. Familia bat eratzten ari diren emakumeek hitz egiten ari gara, batez ere. Ezin diogu enpresari kontratazio exigentzia bat egin, baino ongi trebatuak badaude enpresetan sartzeko hasmenta izan dezake». Urte batzuk darama-

te eskaintza aldatu nahian. «Ez dugu nahi orain emakume guztiak soldatzaileak eta galdaragile izatea, baizik eta errealitate bat islatu nahi dugu». Baina emakumeari lotutako baldintza sozio-kultural askok aukera jakin batzuk egitera eraman ditu eta horren aurrean beste bide batzuk proposatu nahi dituzte.

### Trebakuntzarik gabeko langileen beharra

Susana zein Idoiak emakumeak Sakanako enpresetan lanean jartzeko bideetako bat trebakuntza dela baita ere, azpimarratu nahi izan dute, oraindik orain. Sakanako enpresa askok formakuntzarik gabeko langileak behar dituela. «Sakanako enpresetan oraindik trebakuntzarik gabeko langileak behar dira, eta horiek emakumezkoak zein gizonzkoak izan daitezke. Gure borroka ezin da izan enpresaren aurkakoa, horregatik gaude formakuntzaren, informazio gehiagoren alde baina enpresak ere zerbait egin behar du» azaldu du Emakumeen Bilguneako.

Bestalde, azpimarratu dute emakumezkoak sartu dituzten enpresetan oso ongi funtzionatu dutela. «Enpresak konturatu dira emakumeak oso ongi funtzionatzen dutela eta emakume batek uste zuten baino alor gehiago bete ditzazkela. Hori da errealitatea. Beraiek nahi duten gizonzkoen baliabiderik ez badago, emakumezkoena badagoela esan nahi diegu. Enpresen planteamendu ireki bat nahi dugu», gaineratu du.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Pierre Duhour Beskoiztarraren Iana gure herrian

Ez zen biziki idazle emankorra gertatu Pierre Duhour lapurtarra, alabaina utzi zizkigun idazkietan xarma berezia atzeman daiteke, hizkerari bagagozkiola bederen, bada, gaiak zirenen aldetik, zeharo tradizionalak suertatzen dira betiere, euskaldun-fededun formulari erabat atxekirik. Edozein modutan ere, eta tamalez, mende hasieretan igaro zitzaizkigun egile ugarien artean aisa koka dezakegun Duhour jaunak nahikoa ezezagun darraikigu.



**B**ESKOITZEN 1890. EKO EKAI-naren 20an sorturik, marinela ibili zitzaigun gaztaroan. Lan ezberdinetan salatu ostean, bizitzaren azken urteetan Hazparneko giza asegurantzan ihardun zuen, bertan 1968.eko urtarrilaren 18an hil zelarik. Eskualduna-ko zuzendari aritu ostean, 1915. ean Hiriart-Urruty zendu eta Ademak al-dizkariaren leinari eutsi berri zion urte t'erdiko tarte eskas- an, euskaltzain urgazlea izan genuen. Bestalde, orduan Iparralean egiten zirean argitalpen ezberdinetan kolaboratzaile finkoa genuen Duhour: *Gure Herria, Almanaka, San Franses, Etxea, Herria, ...*

Lanik gehienak *Gure Herrian* eman zituen argitara, estraine-koak pilotaz ehundu zituela. 1922.eko «Hazpandar bi pilota-ri» eta 1926.eko «Hazpandar pi- lotariak» artikulua Espantxa eta Behaxka Hazparneko pi- lotari haundiez, eta bereziki, lan- bidez zapataria zen Behaxka plekari buruz ondu zizkigun: «Partida ttipietan aphur bat bi- ziegí eta idorchko balinbazen laguntzat, partida handietan gizon ixila zen, bethi plaza gi- zon ederra, gorphuttez lerdin, zalhua, jolle azkarra eta jokola- ri abila, jendentzat ere lañoa, bere begitarte sanhoarekin. Behako batez beretzen zituen behariak; geroztik nehor ez da iragan hurbilik ere horren hei- nerat Hazparnen»; Behaxka hura Darritxon zuen izena eta Hazparneko Jella etxean sortu zen 1871.eko ekainaren 2an. Gaskoina errebotlari handia ai- tatxia zuelarik. Duhour kexu agertzen zen ordurako pilota maldan behera errekarra zihoa- lako; Behaxkaren garaietan, berriz, aunitz ziren Hazparne- ko plekariak, 22tik gora, bere- ziki kostalde aldera jotzen zu- tenak: «Partidak bazituzten itsasoko alderat, baina gutti Mauleko pharterat. Gaskoina zenaren erranetarik bat bada

bildua, ez da batere itsusia. La- gun bati erran zuen hil aitzine- ko egunetan: *Ez beldur izan iguzkia, jeikitzen den es- kualdeko pilotariez, bai- nan kasu iguzkia sartzen den zokoko heer».*

Erromako itzulia Baionako La Presse irarkolan 1931. ean agertu zuen liburu solte gisa, haatik, au- rretik ere *Gure Herrian* aterata zen atalka 1930-1931 ur- te bitartean: «Nola baitugu itzuli bat egina, ez bakharrik gustukoa, bainan maithaga- rria, biziki usu gogoan duguna, berriz eginen dugu hemen, *Gure Herria* agerkari eder hunen irakurtzalekin batean, xehe- xehea emanez joan-jin hartako berri». Trenez aterá zen Bai- onatik ekialderantz herriko Mi- rante erretoarekin eta beste hainbat lagunekin, hala nola, Picochet edota Barbier. Marse- llan Italiatik etorritako tren ba- tean igo ziren: «Han zen gure bilha jina Italiako train luze bat, karro guziak berri-berriak, berniza zariotela, oraino heze- xkoa, galtz-ipurdietan lotzen baitzen, zombaiten khexagarri». Kostaldeko bidea harturik, arazo haundirik ez zuen izan ikusitako hiriak ezagutzeko, marinel zeneko garaietan bis- tatuak baitzituen: «Bazter ho- riek ezagutzen ditugu gure es- kuko bost erhiak bezala, ha- mabost urthe mariñel egon baigira eta askotan gure untzia hiri horietako ur-hegietan bai- tzagon, bereziki Boué de La- peyrère amiralaren azpiko zen untzian ginelarik». Erroman etxe partikularretan aterbetu zirela, hizkuntza ez zitzaion eragozpen: «Gure aldetik erdi aise konpreniarazten ginuen gure burua, saltsa bat egiten baiginuen español, kaskoin, frantses eta eskuararekin, sal- tsa hórrekin zombait kheinu, nola ez ginuen bada elgar adi- tuko?». Egitarauan bete beha-



rreko lehenbiziko gauza Aita Santuak frantses beilariendako eman meza entzutea, hu- rrengo egunetan be- rriz katakunbak eta elizak bisita- tzea. Ez zuen, or- dea, Erroma gusto- ko: «Erroma hiri bera ez dugu ederra kausitu; saletxe bakhar bat ez da begikorik, atxe ar-

gamasa batzu dira biziki azkar- ki eginak, bainan ilhunak, de- na murru, buztin kolore. Ez dugu espanturik ez karrikez ez plazez. Elizetarik landa, Erro- mako gauzarik ederrenak kau- situ ditugu ithurriak, eta bada zer nahi, hiri guzian, ur garbia dariotela nasai». Erromatik Asis aldera joan ziren beilariak: «Elhurra ari zen eta haize bat izigarria hotza, hormatuak bai- ginen tokiaren geinean», eta Asis hiririk Génes hirira: «Ede- rra da ta handia, bestelako da Erroma hiririk eta betse harra- mantza karriketan. Itsas portu bat badu ederrenetarik. sakela bat iduri».

Hazparneko Elhjarrea etxe- koa zen Grachien Istilart Ma- keako auzapezari buruzko arti- kulua agertu zuen 1932. ean, eta 1934. ean «Etcheak eri» izenburuko dei mingarria Eus- kal Herriatik ihesean etxea abandonatzen zuten emigran- teen kontura: «Zonbat etxeko seme edo alaba, eskualdun garbiak, beren aitaren, aitatxo- aren sor-tokia, ondorioz ukhan etxondoan saltzen dutenak atze bati edo oraino gaizkiago dena, erdaldun bati! Etxondo- ari ihesi badohazi hirietarat be- ren ustez bizi goxoagoko baten iragaiteko. Denek badakigu, nola urrikitzen zaioten gehie- ner ondoko egunetan, bainan berantegi». Azkentzeko, *Gure Herrian* agertu zuen ondarreko lana 1968.eko *Francis Jammes Hazparnen* izenburuko izan zen.

etorri ahallean

PatziKu Perurena



## Igarkizunen poesia

**G**AIZKI HEZITAKO GIZABE- re traza igoal hartuko zenidan, gaur zortzi, txoko honetan ber- tan puzker kontutan ari nintze- la. Baina ez, filosofiko ezezik po- etiko ere izan liteke puzkerra. Hona non duzun, nik euskaraz inoiz aditu dudan igarkizunik ederrenetako bat:

«Bi malkorren artetik idi bat orroz».

Barranka aldean R.M. Azkuek jasotako asmakizuna. Horratz puzker baten irudia, arte poetiko zoragarri adierazia. Hori poesia ez bada, zer ote egungo euskara? Begi bistako da, gaurko irudi- men xuriak ezin izanen lukela horreinen irudi eta musika ede- rrez inola ere jantzi puzker baten izate ilauna.

Eta metafora zahar horren zantzuak, gure eguneroko hiz- kuntzan barra barra erabiltzen dira oraindik. Zenbat aldiz ez di- tut aditu, honako honelako ate- raldiak, ixilaldi llabur bateko po- rrot eder baten aurretik edo on- dotik: «hara, gure behi beltza ha- si da marruka!», edo: «txo, trumoi- ka hasi al du?». Honelako poesia ironikoa, eguneroko ogi animi- koa dizu, batez ere, sukaldetik ikulurako animazio beroa edo ekaitzaren kezka hurbiletik bizi izan dituenak.

Begien bistako da igarkizun edo pipitaki deituriko hizketa jo- kook, literatura eder izanak di- rela noizbait. Zenbait igarkizun zaharri ongi begiratuz gero, ikusten baita, irudi metaforiko eta poetiko zoragarriak gorde- tzen dituztela.

Honatz, Zuberoatik Arabarai- no ezaguna zen euskarazko bes- te igarkizun bat:

«Kupel txipi batean bi arno mo- ta: xuria eta gorria, nahas gabe».

Ez al duzu asmatzen zer den? Nik ezin sortu, bada, analogia ederragorik, arraultza bat kas- kezurrean lehertzea ez baduzu nahi.

Igartzten da bai, gure inguru- mariko gauzak egun baino zi-

nekoagoak, zehatzagoak, finko- agoak eta egonkorragoak ziren garaikoa izandua dela pipitakien urre aroa. Oraingo iruditeria exotiko taigabe asmaberriuan, honenbeste teknika arrotzek eta zibernetikak gure irudimena eta ingurumaria fikzioz epokatu eta nahastu dutenetik, kasik ez baitu zentzurik, behialako mun- du liriko eta patxadako batean bezala, ikusi makusika hasteak.

Borgesek hala esaten omen zuen, aspaldiko igarkizun xar- magarri haiei buruz: «batzuren batzuk hain dira orokorrak, non oraindik ez dituen inork asmatu». Eta nork uka niri, poesiaren zai- nak, funtsean, analogia ezinas- matu horretan gordetzen ez dire- nik?

Joseba Sarrionandiak hala dio «Sitsek irentsi ez zituzten igar- kizun batzu» artikuluan: «Erdi Haroan igarkizuna literatura moeta zen, metafora eta alego- riarekin arras lotua. Anglosa- xoierazko kodize zahar batean larogeita hemeretzi igarkizun oso poetiko agertzen dira, eta 48 zenbakiaz ezagutzen dena hau da:

«Har batek jan zituen hitzak. Harrigarria! Harrak ilunbetako lapurretan, gizonaren kantu os- petsua eta bere esangura borti- tzak irentsi zituen. Baina ez zuen lapurrak, hitzak jan arren, deus ikasi». Erantzuna: «liburutegeta- ko izkribu zaharrak irentsi ez eli- katzen den sitsa».

Ez dakit zergatik, baina, sits horren antza osoa du egungo euskaldunak, beus bada, hitza- ren argi poetikoaz jabetu beha- rrean «ilunbetako lapurreta axol- kabean, hitzak jan arren, deus ikasten ez duen orojakilea» baita. Kontuak hola, arrunt ariketa aberatsa izanen litzakela irudi- tzen zait, euskara «ikus makusi- ka» ikastea; hartara hitz hutsaz baino lehen, hitzaren kargamen poetikoaz eta analogia sinboliko- az jabetu beharko bailuke ikas- leak, eta ez gutxiago irakasleak. Borgesek esanaren ariora, es- painolez asmatu behartako pipi- taki jenerala bihurtu baitzaigu kasik euskara.

## Ziria

• Motxorrosolo •


### Sartu-irtenak

**Z**AZPIAREN SATANIZATZE GARAIAN, TXERRENARENA NAHIAGO. Ezjakinak andana izan arren, gizarteak bizirik iraun du azken urteotan. Ohiko biltokietan kausituko dituzue, sarri halamoduz bada ere. Horien sustengua nahi bada, ez da batere komenigarria sartu-irtenak egiten jardutea. Mamia badira, mamitu behar.

Peio Monteano  Historialaria

# «Nafarroak lehen ere osotasunik gabe funtzionatzen zuen»

Peio Monteano historialariak *Nafarroako nekazari mundua XV eta XVI. mendeetan* tesia irakurri berri du Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Monteanok bi mendeotan biztanleriak izan zuen bilakaera aztertu du. Orain arte ez bezala, Nafarroa Garaia eta Beherea batera ikertu ditu, nahiz eta osotasunik gabe funtzionatu ez.



soslaia

MIKEL SAIZ

ZURRA DA MONTEANOREN hitz jarria; jaioterriaren historia bizi eta maite duela antzematen zaio, egin duen lanaz mintzatzen orduak eta orduak iraganen bailituzke.

■ **Nafarroako nekazari mundua XV eta XVI. mendeetan irakurri duzu NUPen. Oso ezberdinak diren bi mende ikertu dituzu.**

Batera ikertzen ez diren bi aro ikertu ditut, eta ilunak izaten jarraitzen dute; lehena Erdi Aroa da, eta bigarrena Aro Modernoa. Orain arte eza gutzen ez genuen bi mende horietan Nafarroako biztanleriak izandako bilakaera irudikatu dut. Bestalde, zerga errealean eragina aztertu dut. Bi mendeok oso garrantzitsuak dira Nafarroa modernoa ulertzeko. Kontuan izan espainiarren konkista garai horren erdian gertatu zela.

■ **Nafarroa modernoarentzako bi mende horiek oso garrantzitsuak direla diozu.**

Garai hartan estatu independentea desegin egin zen, 50 urteko gerra zibilaren ondotik. Konkistaren ondotik, mitifikatutako Nafarroaren erakundetzea gertatu zen. Gaztelarekin egin akordioan sartu zen asmakizun hori guztia. Orduan gauzatu zen Nafarroaren estatusa Espainiako Koroaren baitan. Bata zein bestea ezezagunak izan arren, oso idealizatuak daude historiografia tradizionalan, egun baduelako bere etekin politikoa. Agramondarrek monarkiaren jarrerak defendatzen zituzten, eta eragin

handia zuten hegoaldean. Beamondarrek —gerora Gaztelaren aldekoak izanen ziren, eta konkista erraztu zuten—, berriz, egun euskaldunak diren aldeetan izan zuten eragin gehien. Ordukoari ezin zaio egungo ikuspegiarekin begiratu. Kontzientzia nazionalak oso gauza berriak dira. Jendeok odol fideltasunari begiratzen zioten.

■ **Nola bizi izan zuten garai hura biztanle gehienek?**

XV. mendean, biztanleentzat pairamen handia ekarri zuen monarkiak, esfortzu fiskal handia kostatu zelako. XVI. mendeak laguntzen du ikusten jendeok ez zirela espainolak sentitzen. Konkistari aurre egin bazioten ere, Espainiako monarkiaren aurka egon eta gero, XVI. mendearen erdialdean nahiko eroso egon ziren. Hori bai, tesiak frogatu du, *Del Burgismo* politikoak besterik dioten arren —hau da, espainiarren konkista izan eta gero dena primeran joan zela—, Erresumako goraldi demografikoa eta ekonomikoa konkista baino lehenago hasi zela. Espainiarrek aurkari moduan zeuden bi aldeak baretzen lagundu zuten, besterik ez.

■ **Bide berri bat urratu duzu Nafarroa bere osotasunean aztertzean.**

Alderdi geografikotik eta alderdi humanotik aniztasun handikoa den erreinu bat ikertzeak lan handia eskatzen du eta alde bat bakarrik aztertzea osotasuna desitxuratzeko da. Nafarroa ez da alde

Peio Monteano Atarrabian jaio zen, duela 36 urte. Espainiako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitatean ikasi zuen Historia, eta ondoren Soziologia, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Euskal Herriko Unibertsitateak emandako diru laguntza batekin egin du duela gutxi NUPn irakurri duen Nafarroako nekazari mundua XV. eta XVI. mendeetan tesia. Dena den, NUPeko sektore baten jarrera kritikatu egin du. «Altsasun muga bat ezarri dute, eta errezelo asko daude EHUKo jendea honat ikertzera etortzeko», dio.

Egun Atarrabiako Udalean Oinarritzko Zerbitzuetako idazkaria da. Atarrabiako historian eta artxiboetan arakatzea du afizioetako bat. Nolanahi ere, ez omen da liburutegietako zomorroa, eta nahi baino gutxiago ateratzen omen da, dela lagunekin dela lasterka egitera.

Aspaldian hasi zituen euskara ikasketak nahiko ahaztuak badauzka ere, aurrerantzean ere ikasten jarraitzeko asmoa du. Nafarroako izurritea aztertzen dihardu: heriotzen zergatiak, gaitzaren aurka hartutako neurriak, eta izurritea gainditzeko ezarritako mugak ekarritako kontrol soziala, besteak beste.

bat bakarrik, baizik eta guztiak, eta denak ikusi behar dira. Ezin da Nafarroa Beherea ahaztu, beste esparru bat delako demografia, ekonomia, kultura eta historiari erreparatuta. Egun bezala, orduan ere osotasunik gabe funtzionatzen zuen Nafarroak.

Egun, aniztasuna ez da amaitu, eta kultura alorrean areagotu egin da. XVI. mendean, biztanleen %80 mintzaten ziren euskaraz, eta Nafarroa Beherean %100. Egun gutxiengo dena orduan gehiengo zen.

■ **Espainiak Nafarroa Garaia hartzeak egin du zaila Beherea eta Garaia uzartzea?**

Konkistak ekarri zuen apurketa zaila da konpontzen. Nafarroa Beherean Nafarroako erregeak Frantziakoak izatera iragan ziren arte, estatu txiki batek bezala funtzionatu zuen. Hegoaldekoek benetako Nafarroa berak zirela uste zuten, eta Iparraldekoek gauza bera. Hala ere, dokumentazioa ez da ugaria. Nafarroa osotasunean ikeritzen saiatu banaiz ere, onartu

behar dut 1525etik aurrera —Espainiako armadak Nafarroa Beherea hustu zuenean— Nafarroa Garaiko historia Nafarroako historiartzat hartu dela. Erreina osotasun bat bezala ikusten saiatu naiz, batez ere kontuan izanik XV. mendeko noblezia gehienak Nafarroa Beherean zuela jatorria.

■ **Zein datu nabarmenduko zenituzke?**

Nafarroa 1340an mundu bete bat da, baina orduan hasi ziren zailtasunak. 1348an, izurri beltza iritsi zen, eta Europa osoan Nafarroak pairatu zuen gehien izurritea, Normandiarekin batera. Nafarroako biztanleen erdiak desagertu ziren urte gutxitan. Bihiru belaunalditan, Europa burua altxatzen hasi zen, baina Nafarroa ez. Goraldia 1470tik aitzina hasi zen, eta XVI. mendeko zabalkundea bortitza izan zen. 1600tik aurrera beherantz hasi zen berriro, eta XVIII. mendea arte ez zen lehengora itzuli. Nekazari komunitatea asko indartu zen, eta orain galdu den udalerraren elkartasun ideia orduan zabaldu zen.

→ Irene Arrizurieta

**Txuri  
Ta  
Beltza**

**12 ETAN  
PRENTSAURREA**



## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Interes orokorra

**F**utbolzaleak ez garenok berriro jasan behar izan dugu futbolzaleak diren atsekabe eta samina. Haserrea zenbait kasutan. Ez dutela telebistan eman. *Eskandalo es un eskandalo*. Politikariek hitz egin dute, komunikabideak ez dira minutu batez ere isildu. Enteratu nahi ez ginenok zeozertaz enteratu behar izan dugu.

Interes orokorra aipatu dute behin baino gehiagotan. Maluskulaz hobe: INTERES OROKORRA. Hala zioten, ahotsa goratuz, tamainako injustiziarri aipamena egin behar zitzaionean. Interesa izan bada, baina ez da batera orokorra: partikularra batzuk, komunikabideen mozkinak, futbolarien soldatak, enpresarien onura; hori da interes orokor horren azpian ezkutatzen diren bakarrak.

Gaur eta hemen beste gauza askok mereziko lukete interes orokorraren izendapena. Esate baterako, hor dabilta aspaldidanik Herri Ekimen Legegilearen kideak Eskubide Sozialen Gutuna bultzatzen. Lan handiaren ostean, sinadurak bilduz, gizarteari ekimenaren berri emanez, zirt edo zart egiteko momentua ari da hurbiltzen. Parlamentuak erabaki beharko du horrekin zer egin. Gauzak nola dauden ikusita, eta oilategia ezagututa, ez du ematen gisa honetako oinarritzko proposamenik aurrera aterako denik. Eta kontua ez da baloia non sartu, baizik eta gizabanako askori gutxieneko batzuk ziurtatzea egunerokoari aurre egin diezaioten. Gaur eta hemen jakin beharko genuke, betiere interes orokorraren izenean, zer egiten duten aurrezki kutxek urtero handitzen dituzten etekin itzelekjin. Zergatik enpresari handiek ez duten inoiz lanpostua galtzen eta halen menpeko langileek, ordea, bai. Nori interesatzen zaion benetan euroaren sorrera. Nork aterako dion etekina Itoizko «interes orokorrari». Nortzuek zuzentzen dituzten komunikabide independenteen hariak. Zer dela-eta baloi biribila bihurtu diguten eguneroko ogia...

Baina gaur eta hemen taldeen hamalakoak buruz dakizkigu, jokalarien lesioak, fitxaketen zenbatekoak, kristoen guztien adierazpenak. Batzuen interesak oso partikularrak direlako.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

**Iruñea:** Georges Moustakik kontzertua eskainiko du etzi, Gaiarre antzokian, 20:00etan.

**Gares:** La Polla Records taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 23:00etan, Fundamental aretoan. Sarrerak 1.500 pezeta balio du aurretik erosita, eta 1.800 pezeta leihatilan.

**Iruñea:** Datorren ostegunean Curro Piñanek eta Carlos Piñanek flamenko emanaldia eskainiko dute Gaiarre antzokian, 20:00etan.

### ERAKUSKETAK

**Iruñea:** Donibane Kirol Elkartearen Inauterien inguruko erakusketa dago zabalik hilaren bukaera arte.

**Tafalla:** Lagar erakusketa aretoan Iberdrolak eta Kultur Etxeak antolatutako, *Fosilak eta mineralak* erakusketa ikus daiteke datorren astearte arte.

### ZINEMA

**Iruñea:** Karririkiri Elkarteak antolatutako, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur *Wallace eta Gromit* marrazki bizidunak emango dituzte 20:00etan. Aurretik *Mateo txistu* film laburra eskainiko da.

**Tafalla:** Zinema Españolen *Amores en tiempo de guerra* David Lelanden filma eskainiko dute datorren asteartean eta ostegunean, 20:00etan eta 22:30etan.

### ANTZERKIA

**Iruñea:** Mikelatz taldeak *Amata edo VIII. mendeko euskaldunak*

eskainiko du Salestarren aretoan datorren ostegunean, 20:00etan.

### BERTSOLARIAK

**Tutera:** Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa egingen da bihar, Castel Ruiz kultur etxean, 19:00etan. Bertsotan hauek ariko dira: Manolo Arozena, Nerea Bru-

ño, Ekintza Landa, Iñigo Olaetxea, Aritz Saragueta eta Julen Zelaia.

### BESTELAKOAK


**Iruñea:** *Dirua eta familia* Erdi Aroko Lizarran hitzaldi zikloen barruan, datorren asteazkenean *Criminalidad y justicia en Estella* hitzaldia eskainiko du Marcelino Beroiz Lazkanok.

Mintzaldia Gustavo de Maeztu museoan izanen da, 20:00etan.

**Iruñea:** Gregorio Ariz mendizaleak *Viaje a Nueva Zelanda* diapositiba emanaldia gaur, 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkartearen Bestalde, Kanpezura eta Codesko Santutegira mendi ibilaldia antolatu du etziko. Informazio gehiago: 948/22-43-24 telefonoan.

## Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¡Canto pesa e cómo fede!

Nola den astun, eta dakarren kiratsa!